

## EUSKERAZKO KONTUAK

## ATAUN-GO ZAPATARIA

## I

**E**SAERA bada: «langillerik onena, mozkorrena».

Ataun-go seme bat zan oso langille yayua, berak sortu zuben eztena, zeñak zulatzen zituben zulurik sendoenak; bañan ain mokollo ederrak arrapatzen zituben, non beti ibiltzen zan blusa zar batekin, bizar zikiñ eta abarketa zarrakin.

Emen azpeltu edo buruz bide bat arturik, joan zan Madrid-ara lan billa; inguratu zan ango denda aundi batera, zeñetan jartzen zuben *Zapateria de lujo*, eta sarturik barrura diyo :

—Buenos días, tienusté trabajo pamí?

—Usted es zapatero, ó viene por limosna?

—No, señor, zapatero bueno, bueno.

—Vaya usted de ahí con esa cara de borracho, y esa facha. ¿Usted hace botas para los pies ó para vino?

—De toro un poco.

Orduan bertako nagusiyak ekartzen du bota eder bat belauneraño jasten diranetakua, ta burlaz bezela esaten diyo:

—¿Usted haría una bota como ésta?

—Tamién más mejor.

—¡Calle usted, borrachín!

—Egiyetan de beras, ya te berás.

Nola egin bear zan pare eder bit agintari famatu batentzat eta presa aundiya zan, esan ziyon:

—Pues bien, tenga usted el material y las herramientas y á ver si las hace usted cuanto antes.

Galtzarbian pardela zubela alde egin zuben.

## II

—Buenos días maistro; esanaz, azaldu da euskaldun au denda artara, besopean bota izugarri ederki egindako batekin.

—Hola hola; ya está la obra? me alegro, estaba esperando.

—Señor, yo haser uno solo torabia y uste mirar la muestra.

—Begira jarri zan lanari, eta ain puntada ederrak ikusirik arritu ta deitu ziyon dendako langille denai ikusi zezaten; guziyak eskuetan zebilkiten tacharik ote zeukan, bañan denak ziyoten:—Gezurra diruri zarpatzu orrek egiña dala, gu bañon yayuagua da, eta nagusiyak esaten diyo:

—Parece mentira que usted haya hecho esto, con esa cara de..... borracho. Bueno, está bien; haga la otra pero cuanto antes.

Joanda lengo ganbara zarrera eta ekiñ diyo lanari, bañan oñetako bota egin bearrian, gaya arrekin egiten du oso ederki zatua ardotakua, muturrian kanabela dubela, zapi batian bildu ta emen dator nagusiyagana.

Nagusiyak ikusi zubenian zetorrela, pozturik ain azkar egin zube-lako, ala esan ziyon sartu ordurako:

—Ya trae usted la labor?

—Sí, señor; eta ematen diyo eskuetara pardela.

Nagusiyak askatu ta ikusi zubenian errabiz diyo:

—¿Pero hombre, qué ha hecho usted?

—La otra bota; ¿no has dicho usted, si yo haser botas para los pies ó para vino?: yo desir de toro un poco, ahí tienusté de las dos clases.

—Déjese usted de tonterías y haga como la primera.

—Sí, pero..... pero, me faltas errecursos y dame usted adelantao diñero y enseguida ya haser.

Nagusiyak poltzikotik amar duroko billetia eman ziyon esanaz:—Tenga por adelantado, pero á condición de traer pronto, porque tenemos prisa para entregar.

—Sí, señor, sí; sí, señor.

Dirua artu zubenian, lenbiziko kalia jiratu ta taberna batera sartu zan; bete-bete egin zan, zaldu horma ta trezna guziyak, eta etzan ge-yago arren aztarranik atera.

## III

Ataundarrak Madrid-en egin zuben lenbiziko bota eder bakar ura, amar urtian *escaparatian* zintzilik egon zan, baña ez du iñork, makiña-bat zayatuagatik, arren lagunik ain ondo egin.

JOSÉ ARTOLA